

Etxegarai jaunari erantzuteko alde aurretik aukeratu zan Eguskitzea euskaltzain jauna. Gaiñ-gañeko lana irakurri zigun: ondo dakigu euskaltzain jaun onen lanak mami ederez apainduta datozela beti, baiñan lan au, erantzupen-itzaldi au, ederen-ederenen gañetik ibilia da noski.

Besterik gabe, amaitu zan batzaraldi au, oiturazko otoitzez.

Azpeiti'n, Udal-Etxean, 1925'ko Garagarila'ren 26'an.

Euskaltzaindia batzaraldi eskutuan bildu zan, ler aipatu diran euskaltzañak barenean dirala: Azkue jaun maipuru.

I.—Eguskitzea jaunak Xurio'ren Kristau-ikasbide edc Dotriñaren azterpen lan bat irakurri zigun, batez ere beronen aozkera ta itzen ikaspenari dagozkien iritxi-penetan ugaria.

II.—Azkue jaunak iragarri zien euskaltzañai, Gernika'ko Epaille-Nagusiak idatzi ziola, *Miren, Iñaki, Ander* ta beste euskeraz dabilzenen izenaz, iritxi bai eskaturik. Azkue jaun berak, Epailleari egindako ezkutitzea irakurri zigun. Ezkutitzak dio: izen oiek ez dau dela ondo sortuak, Azkue berak gañantidun deritzazkion iritxipenagatik. Garbi aitortu dio Epaille jaunari: ez diola Euskaltzainburua danez iritxipen ori ematen, bai ordea Azkue dan uts-utsez. Ezin zezakean besterik erantzun, gai onetzaz ez du oraindik Euskaltzaindiak erabakirik artu-ta.

Altube jaunak esan zuen: Etxitzaiola ondo iduritzen Azkue'k ofen laxteren egindakoa. Beste aldi berdiñetan, Azkue jaunaren oitura txalogaria izan dala, eze-

ren iritxirik eman baño lenago, Euskaltzaindiari iragartzen zion-da. Oraingoan ez duela ez oiturik ez astirik artu; beriala erantzupena eman duela ta auxe deritzaiola mingarrena, batez ere, Azkue jaunaren izen befa askok erabili lezatekelako euskerazko izenen kaltez.

III.—Altube jaunak *acento-tzaz* egindako lana irakurtzen jaraitu zuen.

IV.—Landeretxe jaunak bere alderdian dabiltzan euskerakera politik irakuri zizkigun.

V.—Azkue jaunak ere berak bildutako beste euskerakera edefak irakuri zituen.

Ta beste gairik izan ez-da, otoitzez amaitu da batzaraldi au.

Bilbo'n, Aldundi-Jauregian, 1925'ko Urila'ren 26'an

Euskaltzain abek bildu dira: Azkue maipuru, Urkijo, Landeretxe, Eguskiza, Olabide, Altube eta Lakonbe eta urgazletatik Bähr eta Oleaga.

Oi danez otoitzez asi zan batzaraldia.

I.—Aita Intza'k, Yaur-saileko Buruzagi danez, iragari dizkigu Napañoa aldeko euskal-lanak. Antxe iratsi da *Euskeraren adiskideak* deitzen dan Bazkuna eta egiazko adore edefez asi dala, ta bertako bazkideak oso sutsu daudela adierazi digu. Gañera Aita Intza berak esan digu: nolà gertu ta egin dan euskal-batzaldi bat, Napañoa bertan: zein idazle sarituak izan diran; zer gai erabili diran ta batzaldiaren apaingari egin dan jaialdia. Pozik entzun ditu Euskaltzaindiak befi abek.